

IRAGARKIAK

Beste iragarki ofizial batzuk

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

477

IRAGARKIA, 2025eko urtarrilaren 17koa, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Bizkaiko lurralde-ordezkararena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita «Iparaixe II Parke Eolikoa, 21 MW-koa, eta haren ebakuazio-azpiegitura» izeneko proiektuaren aurretiazko administrazio-baimenaren eta ingurumen-inpaktuaren adierazpenaren eskaerak, Barakaldo eta Valle de Trápaga-Trapagarango udal-mugarteetan (Bizkaia).

Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, parke eolikoen bidez, energia eolikitik energia elektrikoa ekoizten duten instalazioei baimena emateko prozedura arautzen duen maiatzaren 28ko 115/2002 Dekretuaren 7. artikuluan eta Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 53.1 artikuluan aurreikusitako ondorioetarako, eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearekin eta Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legearekin bat etorriz, jendaurrean jartzen dira Iparaixe II Parke Eolikoa eta ebakuazio-azpiegiturari dagozkien oinarritzko proiektua eta ingurumen-inpaktuaren azterlana.

Espedientea: 48-GE-Y-2023-00022.

– «Iparaixe II Parke Eolikoa, 21 MW-koa, eta haren ebakuazio-azpiegitura» proiektua, honetan datzana:

- Parke Eolikoa, 4.2 MW-ko 5 aerosorgailuz osatua, hau da, guztira 21 MW-ko potentzia instalatua, 30 kV-ko aerosorgailuen arteko interkonexioko azpiegitura eta horiek ebaketa zentroarekin konektatzeko linea. Horiek guztiak Barakaldo eta Valle de Trápaga-Trapagarango udal-mugar-teen daude.

- Sortutako energia elektrikoa husteko azpiegitura, hauek osatua:

- 30 kV-ko ebaketa zentroa, «CS Iparaixe II 30 kV» izena duena, Barakaldoko udal-mugartean.
- 30 kV-ko lurpeko linea elektrikoa, ebaketa zentroa eta ST Retuerto (I-DE) azpiestazioa lotzen dituen; horren luzera 4.200 m-koa izango da.

- Helburua: energia elektrikoa sortzea lurreko teknologia berriztagarri eolikoaren bidez.

- Eskatzailea: Erasp Spain SLU.

- Eskaeraren xedea: aurretiazko administrazio-baimena eta ingurumen-inpaktuaren adierazpena.

- Kokalekua: Barakaldo eta Valle de Trápaga-Trapagarango udalerrriak (Bizkaia).

- Aurrekontua, guztira: 25.389.799,44 euro.

Proiektu honen aurretiazko administrazio-baimena ematea Bizkaiko Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Lurralde Ordezkaritzaren eskumena da, eta jendaurrean jarri behar da, ingurumen-inpaktuaren azterlanaren jendaurreko informazioarekin batera, Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 36. artikulua araber.

Hori guztia argitara ematen da interesdunek eta, oro har, herritarrek dokumentazioa aztertu ahal izan dezaten sail honek Bizkaian duen lurralde-ordezkaritzan (Concha Jeneralaren kalea 23, 5. solairua, Bilbao) edo url honetan: <https://www.euskadi.eus/energia-eta-meategi-inguruko-proiektuei-buruzko-informazioa/web01-a2energi/eu/>

Ordezkaritza honetan egoki iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izango dira idatzizko euskarri fisikoan (bi kopia) edo EAEko Administrazio Publikoaren erregistro elektroniko orokorraren bidez (<https://www.euskadi.eus/erregistro-elektroniko-orokorra/web01-sede/eu/>) edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan xedatutako moduan, iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik 30 egun balioduneko epean.

Ohartarazten da pertsona juridikoak, nortasun juridikorik gabeko erakundeak eta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14. artikuluan identifikatutako beste subjektu batzuk behartuta daudela administrazio publikoekin bitarteko elektronikoen bidezko harremana izatera, administrazio-prozedura baten edozein izapide egiteko. Hori dela eta, aipatutakoek jendaurrean jartzeko izapide honetan egindako alegazioak nahitaez bitarteko elektronikoen bidez aurkeztu behar dira.

Bilbao, 2025eko urtarrilaren 17a.

Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasuneko Bizkaiko lurralde-ordezkaria,
MARÍA JESÚS MARKAIDA URIARTE.